

**EUSKARAREN UNIBERTSOARI
BURUZKO JARDUNALDIAK
(Donostia: 1997-III-7/8)**

Honako ale hau labe gorian ogi-mamitzen izango den une berean, Euskal Herrian azken urteotan izan den kultur gertakizunik garrantzitsuenetakoa izan dezakegu marixan Donostian, martxoaren 7-8an; hain zuzen ere, bertan izango diren "Euskararen Unibertsoa - Jardunaldiak". Jardunaldiok, Euskal Herrian zehar, gure hizkuntza eta kulturaren etorkizuna aztertu nahiez hainbat gogoeta egiten ari dela ikusirik bideratuak izan dira.

Ez dugu, gauetik goizera, beroaldi batean sortutako egintza, ibilbide luzeko ahaleginen emaitza baino. Egin-eginean ere, gogoeta luze eta sakon baten ondorio. Jardunaldiotan parte hartzera dei eginez banandu zaigun txosten luzean honako hau irakurtzen dugu (Txostenaren aipamenetan Tx.,...orr. jarriko dut):

"1996ko otsailean, euskararen garapen ildoek kezkatuak 30 pertsona bildu ziren Miramar Jauregian. Euskararen gizarte erakunde nagusietako arduradunak ziren gehienak (AEK, IKA, UEU, UEMA, EKB, EHE, Egunkaria, Elkar-Zabaltzen, Bertsozale Elkartea, Idazle Elkartea, EIZIE, Herri Irratia, UZEL, Elhuyar, Jakin, Hik Hasi aldizkaria, Euskara Elkartek...), baita unibertsitate, irakaskuntza eta herrietako elkarteetako kideak ere, baina maila pertsonalean jardun zuten denek. Eztabaidan eta

elkarlanean urratsak emateko premia nabarmendu zen. Talde Eragile bat sortu zen ildo hauek martxan jartzeko. (...)

1996ko maiatzean bigarren bilera nagusia egin zen Miramaren; euskalgintzako 100 bat pertsona bildu, eta egitasmo hau burutzea onetsi zen. Hala, Jardunaldietarako hiru txostenak (il-doei dagozkienak) lantzeko taldeak sortu ziren, bai eta Jardunaldiak antolatzeko lan taldeak ere. Talde hauek lanean jardun dute azken sei hilabeteetan" (Tx., 4. orr.).

Horrela, etengabeki jardunean arituz, bilera ugari eta jardun luzeen ondoren, hemen gogora dakargun Jardunaldietarako txostena prestatu zuten. Hasieratik euskal munduan lanean ari direnei ahalik eta partaidetzarik handiena ematea izan dute helburu, urte luzeetan eginiko lan oparoaren hausnarketa egin eta etorkizunerako abiabideak zehaztu nahi direla.

Sakabanatutako ekimen eta indarrak biltzeko asmoz martxan jarri diren asmo horiei iruzurrik ez egiteko, hainbat aurkezpen egin dituzte aurten Euskal Herri osoan zehar, beren asmo eta gainerako zertzelada guztiei buruzko berriak eman eta jendearengan parte hartzeko gogo bizia sortu nahiez. Egia esan, partehartze horretarako aukerarik zabalena eskaini dizkigute, Jardunaldietan eztabaidatuko den txostena aurretiaz ezagutzera emanez eta bakarka zein taldeka zuzenketak nahiz ekarpenak aurretiaz egiteko bideak zabalduz.

Ekimen honen bultzagarria azaltzera joanez gero, zenbait urtetan EKBko arduradun eta hainbat euskal ekimenen bultzatzaile izan dugun Paulo Agirrebaltzategik EGUNKARIAN (1997-I.5) plazaratu zuen *Euskararen unibertsoa berretaitzen* laneko hitzak aipatu nahi ditut, zenbaitentzat zer iluna eta, agian, asmo kritiko samarra gertatzen den euskararen unibertso horren nondik norakoak aditzera ematen dizkigu eta:

"Baina hitzak eta izenak aparte, euskalgintzak eta euskal kulturgintzak bizi duen egoeraren kezka zabalaren aitortpena eta horri erantzuteko urrats berria egin behararen uste sendoa dago aurrenik hor.

Bada ia urtebete idea kaleratu zela: kezka zabal eta sakon horiek erantzun nahian euskal kulturagintzako indar, erakunde eta sailentzako bateragunea eratzeke abiatu zen. Ez zen *Kultur Kezka* izeneko lehenagoko ekintza laburraren oihartzun atzeratua, ez haren parekoa. Erakunde publikoek urterik urte euskalgintzari eta euskal kulturagintzari ezarritako mutrizketen ondorioz, *argi gorriak* piztuta ikusi zituen hainbat jendeak; eta egoeraren larria aztertuz, euskalgintza eta euskal kulturagintza noraezean geratzen ari zela atera zuen ondorioz. Euskararen berreskurapenaren arazoari oinarri berriak zegoen ipini beharra, horren normalkuntzarako plangintza orokorra landu eta gorpuztuz" (Egunkaria, 97-I-5, 5. orr.).

Hori dela eta, eragileek "Euskararen unibertsoa" deitu duten honek mugimendu zabal eta autonomoa izan nahi du, hain zuzen ere erdarak inguruan sortu ditugun unibertso hertsitik buruak askatu eta, satellite izatea utzirik, bere bidea askatasun osoz egin nahi duen herriaren eta hizkuntzaren unibertso askea. Hori izango da, hain zuzen ere, hausnarketa hori egitetik sortutako emaitza argitsua, laburbildurik, honako hauek lortu nahi dituela:

"Euskararen Unibertsoarena uste handi baten aldarrikapena da aurrenik: *Unibertsoa*, berez osoa eta autonomoa, eratzen dutela euskarak, euskal kulturak eta horretatik bizi den komunitateak, eta ez erdarazko unibertso linguistikoa, kultural eta sozialaren baten eranskina; asmo handi bat da ondoren: desintegraturik dagoen euskararen mundua berreraikitzea; gizarte-mugimendu bat izan nahi du ondorioz; Euskararen normalkuntzarako plangintza orokorrari oinarri sozial zabala ipintzeko" (Egunkaria, 97-I-5, 5. orr.).

Euskararen unibertsoaren gainean gogoetak egiteko jardunaldi hauek, bada, batez ere, abiadura bizian aldatzen ari den gizarte eraberrinuaren aurrean euskaldunoi gogoeta egiteko luzatzen zaigun deia ditugu. Egin-eginean ere, mundu zabalean gizartean gertatzen ari diren aldakuntzak kontuan izanik, euskaldun (euskara-dun) izaten jarraitu nahi baldin badugu,

zuhur, zoli eta ausart jokatu behar dugula gogoratzeko eginiko aldarrikapena.

Orain dela gutxi, Gotzon Garate euskaltzale ikertzaile suetsuak, kanpoko hizkuntz ikertzaileek esan berri duten zerbait gogoratu, euskararen etorkizuna oso ilun ikusten zuela gogoratu zigun. Zientzialari horien ustetan mende baten barruan mundu zabaleko hizkuntza gehienak desagertuko omen dira. Euskara ere, galduko diren hizkuntzen artean izango ei da, oraindik neurri indartsuak eta zehatzak hartzen ez baditugu, behintzat. Egiatan, inguruko hizkuntzen eragina eta erasoak hain handia izanik, badugu kezkatzeko ziorik!

Etorkizunak ahalegin handiak eskatuko badizkigu ere, gure egoera ez dugula, itxura batean, behinik behin, esku hutsik esan dezakegu. Paulo Agirrebaltzategik oraintsu idatzi duen *Euskararen mundua bateratu* lanean (EGIN, 97-II-12), etorkizunerako abiapuntu izan dezakegun konstatazio pozgarria egiten digu:

“Euskararen mugimendu soziala oso ugaria da: talde eta elkar-teak, koordinakundeak eta erakundeak, enpresak eta fundazioak, federazioak eta konfederazioak, mintegiak eta batzordeak, eskolak eta akademiak, forumak eta txokoak, kafe-teatroak eta hitzaldi-aretoak; antzerki-taldeak eta zine-klubak, aldizkariak eta egunkaria(k), liburuen eta diskoen argitaletxeak, irratia eta telebista, unibertsitateak eta institutuak, liburutegiak eta kulturetxeak, entziklopediak eta hiztegiak, datu-bankuak eta hornitzale telematikoak, itzultzaile-taldeak eta bikoiztaile-enpresak, zinema-ekoizleak eta antzerki-aretoak, liburu-denda eta azokak, kultur eragileak eta kantaldi-antolatzaileak, topaguneak eta elkarguneak” (P.A., Egin, 97-II-12, 10. orr.).

Hala ere, idazlan berberean, euskararen mundu zoziala aberatsa baldin bada ere, orain arte jardunean jo eta ke aritu diren zenbait erakunde eta elkarrek egiten duten lana aztertu eta, gizar-tearen egoera aldatu den adinean, bide berrietatik aurrera egiteko nahiz gizarte horretan eragina izateko koordinaziorako antolakuntza berria bilatu beharra ere gogoratzen digu.

Hori guztia dela hibe, urrats berriak eman nahiak eta oraintsu arte izan dugun egoera kezkarriak bultzaturik, euskararen berreskuraketari bultzada berri bat emateko asmoen eraginez, abiatu dela "Euskararen unibertsoa" deitu den mugimendua gogoratzen digu:

"Euskalgintzaren munduaren sakabanaketa aitortzetik, eta horrekiko kezka bizia aztertzetik hasi zen euskararen unibertsoa berreraikitzeke azken ahalegina; eta gero eta argiago geratzen ari da, analisia zuzena zela; kezka sakona eta zabala dela, eta horren arabera egoera gainditzeko gogoia.

Azken urteotan euskararen normalkuntzarako bidean izandako eraso ideologiko eta politikoen ondorioz, zalantzak kokilduta eta noraezeko sentipenak hartuta ari ginela zirudien; ondorioz, defentsiban edo jarrita geundela ematen zuen. Orain kontrakoa esan daitekeela dirudi; euskalgintzako munduak erreakzionatzeko indarra aurkitua du; indar horixe bideratu nahi dute martxoko jardunaldiek. Erreakzioa ez da lehenagoko egoerara itzultzeko joera atzerakoia, urrats koalitatiboa aurrera egiteko erabakia baizik" (P.A., Egin, 97-II-12, 10. orr.).

Dena den, Euskararen Unibertso horren adieraz sakonagotik jabetzeko eta helburuak eta bitartekoak zehazkiago ezagutzeko, ezinbestekoa dugu jardunaldien antolatzaileek gure esku jarri duten txosten mamitsura hurbiltzea. Laburtu beharrak "Gogoeta Txosten Laburtua" deritzanaz baliatzeraz eraman nau. Hona hemen txosten horretako zertzelada nagusiak.

1.- Definizioa eta osagarriak:

"Euskararen Unibertsoaren definizio laburtua honela eman liteke: **Euskararen Unibertsoa euskaraz egin, berregin eta sozializatzen den kultura eta gizartea da.**

Euskararen Unibertsoak, edozein hizkuntz unibertsok bezala, hurrengo osagai hauek ditu:

- **Euskara:** Hizkuntza, hiztun eta komunitatearen garabidea.
- **Euskalduna:** Maila desberdinetan euskararen jabe —euskaldun— den pertsona oro; *euskaldun pertsona* gizabanakotzat

hartuta. Euskararen hizkuntz komunitatea berregiten ari dela kontuan harturik, euskararen ezagutza "continuum" moduan ulertu behar da, ezagutza ia-zeroetik euskaldun osotuenek osatzen duten nukleo garrantzitsuraino. Euskaldun izatea erabat osatu gabe daukaten pertsonen eskubidea da euskal hizkuntz komunitateko pertsona bezala garapen osoa izatea.

- **Euskararen hizkuntz komunitatea:** Euskaraz egin, berregin eta sozializatzen den gizartea: *euskararen hizkuntz komunitatea*. Euskara sortu duen gizateri zatiaren oinordeko eta parte; jasotako euskara bereganatuz, moldatuz eta birsortuz doana; hizkuntz komunitate bezala bizitzen jarraitzeko borondatearen subjektu. Hizkuntz komunitatea da Euskararen Unibertsoaren ardatza, erdigunea.
- **Euskarazko kultur produkzioa:** Euskaraz egin, berregin eta sozializatzen den kultur produkzioa, euskararen hizkuntz komunitateak eta euskaldun pertsonak landua.

Euskararen hizkuntz komunitateak, bere fruitua eman eta zabalduko badu, bere baitan zentratu eta egituratu egin behar du; bere bizigunea sortu eta zaindu; bere indarrak bildu eta artikulatu behar ditu. Unibertsoaren osasuna zainduz, osasun horretatik harreman, trukaketa eta eraginei irekita egon behar du" (Tx., 12-13. orr.).

Jarraian, gogoetari oinarri sendoak ezarri nahiez, "unibertso eta kategoria" kontzeptuen artean bereizketa egin ondoren, egoera aztertzerakoan orain arte erabili izan dugun ikuspegia aldatu beharra aldarrikatzen digute, kategoria izateak beti zer-baiten atal izatera eramango gintuzkeelako, azken batean, menpe izatera:

"Unibertso guztiak zentro edo ardatz baten inguruan biltzen dira eta erdigune edo nukleo honekiko erlazio graduaren arabera sailka daitezke beren kategoriak. Unibertsoak "osotasuna" adierazten du eta, horrexegatik hain zuzen, kontrajarria da bere barneko osagai edo kategoriekiko. Garrantzi edo pisu espezifiko desberdinetakoak izan arren kategoriak beti kategoria dira, klase berekoak. *Euskararen Unibertsoaren kasuan zentro, ardatz edo nukleo euskaraz egiten duen euskal komunitatea da*" (Tx., 13. orr.).

Horrela, euskaldunok, bestalde, argi izan behar dugu historiaren ibilbidean dihardugula eta, era berean, historia horren oinordeko eta partaide, hain zuzen ere, historian zehar gorpuzten eta garatzen joan den komunitatearen partaide garela gogoratzen digute. Historia horretan buru-belarri jardun behar-ko dugu, bada:

“Euskararen hizkuntz komunitateak ibilbide luzea egin du historian zehar. Euskararen jabe izatean, aldi berean jasotzaile eta eramaile gara. Batetik, orain eta hemen bizi den hizkuntz komunitatearen partaide gara. Bestetik, mendeetan zehar euskara bizi eta moldatu duen komunitatearen partaide. Partaidetza honek iraganaren ilunean galtzen diren aurreko belaunaldien esperientzia eta emaitzarekin lotzen gaitu: **euskararekin**. Bere bizia birsortzeko erantzunkizuna euskararen komunitatearena da. Gurea da, inorena izatekotan, eta nahi badugu, azken aroan izan duen galera prozesua gelditu eta berreskurapena zabaltzeko desafioa” (Tx., 14. orr.).

Arbasoek gure eskuetan jarri dugun euskarak, baina, bizirik irautekotan, erronka berriei egin behar-ko die aurre zeharo aldatzen ari den gizarte moderno honetan. Ezingo dugu, bada, inguruan dugun giza egoeratik kanpo aritu. Ezinbestekoa dugu, bestalde, une honetan bizi-hileko borroka batean ari garela gogoan izatea:

“Gure hizkuntzarekin gertatu den galera eta gertatzen ari den arrisku-egoera mundu-testuinguruan ikusi behar da: munduan oro har gertatzen ari dena da. Estatu-nazioaren joera uniformatzaileak, merkatu ekonomiaren mundializazioak eta hainbat botere-indarrek munduko bizi esperientzien dibertsitatea murriztera jotzen dute; besteak beste, bizi esperientzien aniztasun horren gordailu nagusi diren hizkuntzak arriskuan jarritz. Munduko *bedadura txikiko hizkuntzek* izaten jarraitzeko duten borondatearekin lotzen da gurea. Horiekin esperientziak trukatzea da gure harremanen norabide berezietakoa” (Tx., 14 orr.).

Alabaina, arrisku horiei guztiei aurre egiteko ezinbesteko zera izango da, gure herriak, euskal komunitateak, lehen eta behin,

bizirik iraun nahi izatea. Zer esanik ez, azken urte hauetan gure herriak euskararen alde egin dituen ahaleginak argiro erakusten dute bizinahi horrek pil-pilean dirauela indartsu gure artean:

“Buskararen komunitateak badu bizinahia, izaten jarraitzeko borondatea. Bizinahi horren etengabeko birsortzeak ekarri du euskararen komunitatea XX. mendeko hondarrera. Eta aro honetan, espazio, funtzio eta birsortzeko bideen galerak ekarri duen egoera gutxitu honetan, euskararen komunitateak izateko borondate setatsua erakusten du.

Bizinahi horren lekuko gara gutako bakoitza, baita geure gizarte-errealitatean ikusten ditugun mila adibide ere. Erdaraz aritzea beti posible, errazago eta funtzionalago den gizartean, izateko nahimen kementsuaren erakusle da euskararen erabilerera. Borondate horren neurririk onena erabileraren ahaleginak ematen badu ere, euskararen biziaren eta hori zabaltzearen aldeko gizarte jarrera nabarmena da. Gizarte eta kultur esparru desberdinetan euskaraz bizitzeko eta biziartzeko elkarte, enpresa, prentsa, eskola eta taldeak egiten ari diren ahalegin eskerga, setatsu eta neketsua ere hor dago, arnas emaille.

Jarrera hori bideratzen jakin behar dugu, bizibeharra aldarrikatuz, errealitate kultural, sozial eta politikoei jartzen dituzten mugen gainetik” (Tx., 15. orr.).

2. Eginbeharrak eta proiektuak:

Buskararen unibertso horretara hurbilketa egin ondoren, orain, gaur egungo gizarte aldatu eta aldakorraren azterketa eginik, euskarak etorkizunean bizirik iraun dezan ezinbestekoak dituen eginbeharrak eta proiektuak aurrean jartzera jo beharra dugu. Horretarako, geure buruari iruzur egin nahi ez badiogu, lehen eta behin, begiak zabal-zabal jarritz jokatu beharra dugu. Alferrikakoa genuke errealitate gordin horren aurrean begiak itxita aritzea.

Horretarako, baina, euskararen eta beste antzerako hizkuntz minorizatuak pairatzen ari diren egoera latzen sustraiak, *Uni-*

bersal Declaration of Linguistic Rights'96 itunak gogoratzen dizkigunak, hots, *Nazio-estatuaren joera uniformatzailea, Ekonomiaren mundializazioa, merkatu konkurrentzian oinarritutako gizarte garapena* eta *Nazio-estatuaren defentsarako jarraera* gogoratzen dizkigu honako hau erantsiz:

"Euskararen Unibertsoaren atzerakada mende eta urteetan zehar oso handia izan da. Gaur euskararen egoera kontraesankorra da Euskal Herriaren osotasunean: normalduz doa zenbait gizarte sail eta lurraldetan, aurrera bai baina motelduz beste batzuetan, eta hainbatean, berriz, hizkuntz ordezpenezko prozesuak aurrera segitzen duela gogorazi beharra dago. Gainera, euskalgintzak ez du ia urratsik eman zenbait sektore garantzitsutan, lan munduan eta justizi administrazioan esate baterako" (Tx., 16. orr.).

Horren guztiaren ondorioz ezinbesteko zertzat joko dute Euskararen Unibertsoaren Eragileek, jarraian aurkezten dizkizuedan urratsoi jarraituz jardutea:

1. Garapen oso eta eutsigarria lortu behar du euskal hizkuntz komunitatean, euskarazko kultur produkzioan eta euskaldun pertsonarengan. Merkatu legeak bai, batez ere produkzioan, baina beti ere justu eta berdintzaleak baldin badira.

Honek esan nahi du bere etorkizun duin eta osasuntsua bermatzeko, orain eta gero behar dituen zerbitzu guztiak eskaini eta mantentzeko gai izan behar duela, horretarako merkatuaren konkurrentzia legeak onartuz, baina, justizia eta berdintasunezko oreka segurtatzeko gai diren neurrian soilik; horrela bakarrik sendotuko baitu euskaldunen hizkuntz gaitasuna, hizkuntzaren *corpusa* eta *estatusa* irmotuz.

"Euskararen funtzio nagusia, era betiko eta berrituan emanez, Euskararen Unibertsoaren bizi tresna izatea da garapen oso eta eutsigarria lortu ahal izateko. Horregatik da unibertsoaren erdian dagoen osagaia, berak elkartzen baititu beste osagaiak. Funtzio nagusi horren baitan hainbat azpikategoria egin ditza-kegu: *Euskara komunikazio bide, euskara lanerako bide, euskara identitate bide, euskara bizi bide*" (Tx., 17-18. orr.).

“2. Protagonista berriak eta berrituak behar ditugu Euskararen Unibertsoaren garapenean.

Une honetako euskaldunon gizadia oso garrantzitsua da galera prozesua norabidez aldatzeko. Bizi kinkan dago euskara; norabide aldaketa horrek prozesu sendo bat eskatzen du eta hori gaurko gizaldi osoaren erantzukizuna da. Denok gara eta izan behar dugu protagonista, bakoitza bere gradu eta ahalmenen arabera. Hori aldarrikaturik, arreta eta protagonismo berezia eman behar diogu gazteen belaunaldiari eta protagonista berriok eskenategiaren erdia hartzeko guk denok jarrera berriak landu behar ditugu eta premisa baterik abiatu: **Euskararen Unibertsoak pertsona eta talde desberdinen eta aniztetan oinarritu behar du eta aniztasun eta dibertsitate horretan ditu bere indar eta garapena**” (Tx., 17-18. orr.).

“3. Estrategia berriak prestatu behar ditugu garapen oso eta eutsigarria lortzeko. Zenbait sozializazio kontzepturen birdefinizioa egin behar dugu.

Eskuarki, hizkuntz gatazka dagoen gizarteetan, tolerantzia, diskriminazioa, integrazioa eta honelako kontzeptuen definizioak hizkuntz unibertsu nagusi edo indartsuenen ikuspegitik egiten dira eta herri edo hizkuntz gutxiagotuek zailtasun handiak izaten dituzte kontzeptu horien esanahia berenetik sortu eta gizarteratzeko.

Hori gertatzen da Euskal Herrian ere, non erdaren unibertsuen logikatik definitzen diren batez ere sozializazioaren inguruko kontzeptu nagusiak eta, are okerrago euskaldunentzat, normaltasun eta egunerokotasunarekin uztartzen diren. Gure ustez, hizkuntz tolerantzia, diskriminazioa, bilinguismoa eta gizarterako diskurtsoa osotzen duten beste hainbat kontzeptu garrantzitsu, Euskararen Unibertsoaren ikuspegitik birdefinitu behar ditugu” (Tx., 17, 19. orr.).

“4. Plangintzaren beharra. Euskararen Unibertsoak normaltasuna lortzeko plangintza orokor eta urgente baten beharra du, plangintza aurrunta eta berezia, eta epe labur, ertain eta luzerako balio behar duena, ez baitugu Euskararen Unibertsoaren balio koantitatibo eta koalitatiboaren datutegirik, ez giza eta diru baliabideenik ere.

Orain arteko hizkuntz politika eta normalkuntza ekinbidea oro har, administrazioenak zein euskalgintzarenak, ez dira nahikoa izan edo, behintzat, ez dira behar zuten bezain egokiak izan. Hala ere, euskalgintzak badu esperientziarik proiektu erabakigarriak antolatzen.

Baina plangintza orokorra falta da. Prozezu honetan administrazioekiko lankidetzak lortzen saiatzea oso garrantzitsua da, hala nola administrazio ezberdinek beren planei ekitea eta plan horien arteko uztarketa ematea ere. Administrazioak inplikatzeko ez fortzeak, berriz, ez luke aitzaki izan behar euskalgintzak bere plangintzari ez ekiteko" (Tx., 19. orr.).

Beste hainbat asmo ere agertzen eta zehazten dizkigute Jardunaldion Eragileek, guk guztiok hausnar ditzagun, ez baitute Euskararen Unibertsio hori gutxi batzuen zera izaterik nahi. Honetaz argiro gogoratzen digu gorago aipaturiko lanean Paulo Agirrebaltzategik:

"Sektore sozial guztiek (ekonomikoak, politikoak, kiroltakoak, erlijioarenak, merkataritzarenak, sindikalak, finantzetakoak eta kulturakoak) denek osotzen dute euskararen unibertsioa, euskal herritar guztiekin batera, euskara denetan dagoelako eta denena delako, eta euskararen berreskurapenak denak inplikatzeko dituelako. Euskararen normalkuntzarako plangintza egin eta aurrera eramateko, euskararen unibertsio sozial osoak du partaidetza bizia hor" (Egin, 97-II-12, 10. orr.).

Hori dela eta, egingo die dei Paulok, euskararen etorkizuna bideratzean zerikusirik handia izan dezaketen Herri Erakundeei, egintza eta ekimen hauen guztion bidez eskaintzen zaien aukeraz baliatuz, euskal munduan lanean ari direnekin lankidetzan, inolazko protagonismoa gabe parte hartzerik:

"Bereziki euskararen normalkuntza aurrera bultzatzeko politika egin behar duten erakunde publikoei interesatzen zaie euskal mugimendu soziala zabaltzea eta indartzea eta euskalgintzaren munduaren koordinatzea eta sendotzea. Oinarri sozial zabal eta eraginkorrik ezean, euskararen normalkuntzarako horien lege eta arauak denak, programa eta plangintza txikiak

eta nagusiak, aldarrikapen eta ahalegin instituzional guztiak kamuts eta erdibidean geratuko lirateke.

Benetan txundigarria eta tristagarria gertatzen da zenbait aldiz erakunde publikoetako ordezkari batzuk, euskararen aldeko mugimendu sozialaren erakuntza beldurrez eta uzkurtasunez, lehiakidetzat eta areriotzat hartzen dutela ikustea, horko erakundeek ekimen baligarriak beren ahaleginen aurkakotzat jotzen dituztela. Euskararen normalkuntzako edonolako politika instituzional jatorrek indar sozialetan oinarritu behar du, eta horregatik zinez interesatzen zaio horien zabaltzea, gorpuztea, sendotzea eta egoki eratzea" (Egin, 97-II-12, 10. or.).

Sarritan, gainera, lelokeriatan ari garela leporatzen digute euskararen aldeko hil edo biziko borroka honetan dihardugunoi, gure hizkuntza indartzeak gizarteari onurarik ekarriko ez halio edo. Oso egokiro gogoratzen digu Paulo Agirrebaltzategik, gurea indartzeak besteei kaltea ekarri beharrean onura dakarkiola:

"Euskararen Unibertsoaren baieztapenak, aldarrikapenak eta berreraikuntzak ez du inola ere bere baitan ixtea adierazten. Osotasunarekin batera irekitasuna adierazten du Unibertsoak, etengabeko hedapen-prozesuan dagoenarena. Euskararen Unibertso sozialak eta kulturalak Europako eta munduko beste hizkuntza eta kultura modernoei buruz bere bizitzeko eta garatzeko borondatea aldarrikatu eta bere eskubidea defendatu behar ditu, konplexurik gabe, eta horiekin dimentsio guztietan homologatzeko grinarik gabe, baina bere baitan uzkuartzeko joerari aurka eginez eta unibertso kulturalen interkulturazio orekatuari konfidantzaz atak irekiz" (Egun.,97-I-5, 4. orr.)

Arrakasta zabala opa diegu **Karmel**-zaleok hain gogotsu jardunik Euskararen Unibertsoa aztertu eta bide berriak irekitzeko Jardunaldiak antolatzen diharduten **Fragile** gartsuei. Euskararen Unibertsoaren lekukoa arbasoengandik jaso dugunok, bizitzan zehar duintasunez eta pozez eramaten saiatuz, agian, azti gaiztoen hil-kanpaiak isilaraziz, mendeetan zehar, ondorengo eskutara helaraztea lortuko dugu.

Patxi Uribarren